

## BIOGRAFIAK

Teodoro Hernandorena  
Ipar-Hego lokarria

Galdutako belaunaldi baten ikurra zen Teodoro Hernandorena, “Euskadiren alde, edozer” esaten zuen horietakoa. Bere bizitza mila errimatan luza daitekeen koplata da. Kulturugilearen biografia argitaratuko du laster Larramendi Bazkunak.



## URKO APAOLAZA

Argazkiak: Larramendi Bazkuna

**HERNANDORENAK** “begi kolpea” deitzen zion talentuak plazaratzeko zuen abildadeari. Ehiza horretan, Zizurkilgo abertzale eta euskaltzaleak, hamaika kultur ekimen atera zituen aurrera, berdin Errepublikako urte zolietan edo gerraosteko erbeste mortuan. 96 urterekin hil zen Donibane Lohizunen (1898-1994), eta funtsean, bizitza oparo horretatik bi printza gogoratzen dira: *Enxkad* dokumental aitzindariaren egilea izan zela; Xalbador eta Mattin bertsolariak oholtzara eramane zituela.

Baina Teodoro Hernandorenak hori baino gehiago egin zuen. Hain zuzen, Larramendi Kultur Bazkunak haren biografia kaleratuko du laster Xabier Lasa historialari eta kazetariaren eskutik. Berak dio injustuki ahaztutako belaunaldi baten ordezkari zela Hernandorena, gizartea erroitik alda zitekeela sinesten zuen belaunaldia, altruista eta idealista: “Teodorok,

Abertzaletasunaz hitzaldia ematen Montevideoko irrati batean, 1933an. Hernandorenak bidaia ugari egin zituen Dublin, Buenos Aires eta Uruguaira bere ideiak zabaltzeko asmoz.

jendea ideia baten inguruan konbentzitzeko eta lanean jartzeko ahalmen berezia zuen”.

**Mitinlari aparta, antolatzaile paregabea**

Euskal kontzientzia pixkanaka bereganatu zuen zizurkildarrak. Familian gaztelaniaz besterik ez zioten egiten eta kalean ikasi zuen euskara. Zaragozan, medikuntza ikastetxean, euskal nortasunaz jabetu zen, eta Bilbon, Basurtuko ospitalean, abertzale bihurtu. Justo Garate eta Gotzon Irigarai izan zituen gidari ideologiaren bidaia horretan. Ipurterrea zen nonbait, ez geldi egotekoa, eta hori aski erakutsi zuen gazte denboran. Itsasontzi-mediku lanetan mundu osoan barrena aritu zen eta gero dentista izango zela otu zitzaion, jadanik ezkondua zelarik. Madrilgo fakultatetik bueltan dentista plaza hartu zuen Donostian.

Jakina, orain artekoa gazte bizkor baten itzulipurdiak besterik ez dira. Orduan, noiz hasi zuen Hernandorenak ibilbide ezohikoa? Noiz erabaki zuen “Euskadiren alde, edozer”

## Teodoro Hernandorena

erdiko kaitera

eman behar zuela? Zalantzarik gabe, Errepublikako giroak izango zuen zerikusirik horretan. Dudatan ibili ondoren EAJko Eusko Gaztedian izena eman eta laster Gipuzkoako lehendakari izendatu zuten. Hizlari trebea zen, 120 mitinetan hartu zuen parte urte haietan, Aitzol, Telesforo Monzon eta beste hainbat abertzalerekin. Ordurako hasia zen prentsan artikulua idazten, izan pilota errebotetz, edo kulturaz: “Dr. Hernandorena, nor da?” galdetzen zuen Donostiako *Argia* aldizkariak, “urteetan gaztea, benetan euskalduna, aho-lanetan iaioa, hona Dr. Hernandorena nor den” segitzen ondoren.

Teodoro Hernandorena ez zen alderdi dotrina zalea, horretan Monzonen antza zuen: “Jeltzaleak zilborrari begira zeuden bitartean, kanporako politika ezarri zuen” dio Xabier Lasak. Horren adibide franko dira, baina bakarria hain nabarmena: Gipuzkoako Abesbatza sortu eta Guridiren *Amaia* opera-lana Bartzelonako Lizeora eramatea lortu zuen, Europako teatrorik garrantzitsuenera.

Bestalde, euskarazko lehen irrati saioa egin zuen Joseba Zubimendi eta Ander Arzelusekin, eta Euskaltzaleak, Eusko Pizkunde edo Eusko Nekazarien Bazkuna erakundeen sorreran buru-belarri aritu zen. Funtsean, herria eta euskara zituen maite eta haien alde borrokatu zuen bizitza osoan, euskara euskaldunek salbatuko zutela konbentziturik baitzegoen, Unamunok zioenaren kontra: “Euskararen heriotz-mina Parisen edo Madrilen bilatzea, gure ahuleziaren seinalerik egokiena da”, idatzi zuen behin *Herria*-n. Bide horretatik, harrigarria da nola berpiztu zuen errebotea

### Harrigarria da nola berpiztu zuen errebotea bezalako kirol “hila”, euskal probintzien batasunaren ikur bihurtzeraino kasik.

bezalako kirol “hila”, euskal probintzien batasunaren ikur bihurtzeraino kasik. Zeregin horretan ikusten da hobekien Hernandorenaren pentsamendu ireki eta setatia, gero, Iparraldeko “erbestean” hain ongi erakutsi zuena.

#### Zinemagile, koiunturaz

Ez zen zinemagilea, koiunturak eraman zuen horretara. Izan ere, zizurkildarrak arte berriaren abantailak interpretatzen jakin zuen, ideia abertzaleak zabaltzeko tresna bezala, eta horregatik ekin zion 1933an *Euzkadi* errodatzeari, propagandarako lehen film-dokumental luzea. Herrialde asko Gerra Handian ohartu ziren zinatografoaren potentzialaz. Lumièren asmakizunarekin etsaia zeluloidetan erraustu zitezkeen herritarren begien aurrean, eta iritzi publikoan eragin. 1920ko hamarkadan, zinema soinudunak mutua lurperaturik zuenerako, Euskal Herriko hamarnaka salatan AEBetako edo Frantziako pelikulak ikus zitezkeen, jadanik masa-aisialdirako produktu berritzaile bihurtuta. Baina bertako ekoizpena hutsala zen. Barakaldoko Azkona anaien estudioa izan zen zinema produzitzeko saio anbiziosoena, saio laburra, hala ere.

Testuinguru horretan, ez da harritzekoa EAJko hainbat alderdikidek errezeloz begiratzera Hernandorenaren proiektuari. Baliabide eskasak zeuden eta dirua eruz behar zen, errodajea aurrera aterako bazen. Dentistak bere poltsikotik ordaindu zuen guztia—orduko 5.000 pezeta—; lehenik Bartzelonako Cine-Foto etxearekin jarri zen harremanetan eta teknikari katalanek Euskal Herriko irudiak hartu zituzten 35mm-ko kamerekin. Ondoren soinua eta ahotsa jarri zioten filmari, baita

Ezker-eskuin: Hernandorena 1934ko Aberri Eguneko mitinean, 50.000 pertsonaren aurrean; Txiritarekin egindako argazkian 1936an (gabardina zuriduna), berak antolatutako bertsolariari egindako omenaldia; Parisen, Mattin, Xalbador eta Mitxelenarekin, 1960an.




## “Nik neukan garra pixka bat, jendeak ni nahi ninduen”

ARGIAN, 1988an, Loren Aristik Teodoro Hernandorenari egindako elkarrizketaren zati batzuk:

### HIZLARIA ERREPUBLIKAN

“Banuen nik pentsamendu politiko bat. Orduko garaia eta gaurkoa ez dira berdinak eh! Nik uste ondo egin nuela, ze bate-  
tik eta bestetik eskatzen zidaten joatea.

Gogoan dut behin batek esandakoa: ‘Leizaola gizon jakintsua dugu, baina guk nahi dugu zu etortzea txarla ematera’. Nik neukan garra pixka bat, jendeak ni nahi ninduen”.



Penagarria, penagarria... Aitzol horrela, gaztetan fusilatzea. Bazekiten ze egiten zuten Aitzol fusilatzean, bazekiten bai!”.

### DOKUMENTALA

“1934ko Aberri Egunerako kasu, Bartzelonatik fotografo bat ekarri nuen, partiduari sos bat ere eskatu gabe. (...) Fotografia oso onak zirela ikustean etorri

zitzaidan burura: ‘Zergatik ez dut pelikula bat egiten? Propaganda egiteko aproposa da”.

### BERTSOLARITZA DUINDUZ

“Donibane Lohizuneko batekin hamaika eztabaida izan nituen: ‘Zu beti berdin Hernandorena. Zertarako nahi dituzu? Gainera, zure herrian badaude baina hemen ez dago bertsolaririk!’. Hendaia-  
tik Zuberoaren azkeneraino korritu nuen eta Ahetzen bilatu nuen Mattin”.

### AITZOL

“Aitzol hiltzea abertzaleek genuen gizonik handiena gal-  
tzea izan zen. Badakizu euskararekin zer borroka izan ditugun... hura bizi izan bazen ez genuen borrokarik izango. Egin ez beharreko gauzak egin ditugu hura hil zelako.

irudi gehiago hartu ere. Emaitza izugarrikoa izan zen. 2.500 metro eta 110 minutuko dokumentalean Euskal Herriko ikuspegi abertzalea erakusten zen: Agirre, Monzon eta Hernandorenaren hitzaldiak, herri eta museo askotako irudiak, Sabino Aranaren hilobia, lantegiak, meza irteerak, dantzak, pilota, feriak...

Muntaiak aurrera egin ahala, garrantzia hartu zuen. Izan ere, Hernandorenak aditu ezagunak erakarri zituen. Testuak idazten Bernardo Estornesek lagundu zion eta musika Aita Donostiak aukeratu zuen; Orfeo Catalák jarri zuen ahotsa. Julen Zabalo *Txikik* ere hartu zuen parte filman eta badirudi Jorge Oteizak eta Nikolas Lekuonak errodaje horretan egin zutela zinemarekin topo lehen aldiz, Ordiziako Urdanetaren etxeari irudiak har-  
tzera joan zirenean.

*Euzkadi* 1933ko abenduaren 22an estreinatu zen Donostiako Casino Kursalean. Sekulako arrakasta izan zuen eta Hernandorenak aurrez jarritako diru guztia berreskuratu zuen. “Erabateko emozioa sortzen duen bilduma plastiko patriotikoa da” zioen argiro *El Día* egunkari abertzaleak, estreinatu zen egunean. Tamalez, gaur egun film originala desagerturik dago, eta ez da ezagutzen haren kopiarik. 1936an, Gerra Zibila hasi zenean, Gipuzkoako EAJren egoitzan utzi zuten materiala eta frankistek erre egin zutela uste da.

### Iparraldeko bertsolaritzaren sustatzaile

Gerra betean, Teodoro Hernandorena Agirre-  
ren Gobernuan aritu zen kultur ekimenak antolatzen –Elai Alai dantza taldeaz baliaturik batez ere–. Frankismotik ihesi Iparraldera joan zenean, bertako giroaz aberastu zen, beste as-

ko ez bezala, egoera berrira ederki moldatuz. Horrela, hiru probintzietan euskaltzaletasuna sustatzeko lanean hasi zen segituan. Nola? Bertsolaritzarekin.

Pello Errotak eta Otañok txunditu omen zuten Hernandorena gaztetan. Bertsolariak, herritarrak euskaltzaletzeko zubia ziren bere-  
tzako. Horregatik, Aitzol eta Zubimendik lagunduta Hegoaldeko bertsolari ugari taberna zuloetatik atera eta oholtzaratu zituen. Iparraldean situazioa dramatikoagoa zen; bertsolaritzak ez zuen batere sinesgarritasunik jendar-  
tean. Baina zizurkildarrak, burugogorkeriaz, Hendaia-  
tik Atharratzeraino zeuden txoko guztiak arakatu zituen bertsolari bila eta Donibane Lohizunen txapelketa antzeko zerbait antolatu zuen 1946an. Han bildu ziren, bes-  
teak beste, Urepeleko Xalbador eta Ahetzeko Mattin. Ordutik, hamaika saio egin zituzten biek, Hernandorena ondoan zutela beti ere.

Teodoro Hernandorena izan zen Iparraldeko bertsolaritza berpiztu zuena. Egun, bere izena daraman gazteentzako bertso sariketa egiten da urtero. Baina hortik haratago, per-  
tsona horrek egin zuena Xanpunen bertso batek laburbiltzen du hobekien:

*Bertsularitza zuri esker da  
Iparraldean atzarri  
Ta eskas zuen berotasuna  
Zuk bai diozu ekarri  
Gu denen bila ez ote zira  
ibilia herri-herri  
Gure artean anaïtasuna  
gainera zinu jarri  
Betidamikan izana zira  
Ipar-Hegoen lokarri. ■*

Badirudi *Euzkadiren*  
errodajeen Jorge  
Oteizak eta Nikolas  
Lekuonak lehen  
aldiz egin zutela  
topo zinemarekin